

**Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari****BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZON POLITIKARIAK
RED DE HOMBRES POLÍTICOS POR LA IGUALDAD**

2026-04-20 Vitoria-Gasteiz 20-04-2026

Sailburuok, Emakunderen zuzendari eta ordezkariok, jaun andreok, egunon!

Emakume eta gizonen berdintasuna lortzea guztion eginkizuna da. Gizabanakoena, gizarteko eragileena, erakundeena...guzti-guztiona. Baina honetan gizonok erantzukizun berezia dugu gizatalde bezala pribilegio batzuk ditugulako:

- Botere politiko, ekonomiko eta sozial handiagoa daukagu,
- Aisialdirako denbora gehiago, etxeko lanaren eta zaintza lanaren zatia ez baitugu oraindik modu orekatuan betetzen,
- Diru-sarrera gehiago eta ondorioz pobrezia-tasa baxuagoak, eta orokorrean,
- Ez gara indarkeria matxistaren biktima. Ondorioz, askeagoak sentitzen gara mugitzeko.

Beraz, balio bera izango duten gizaki askez osatutako gizartea eraikitzeko, funtsezkoa da sexismoaren oinarrian dauden genero arau eta rolekin bukatzea.

Azken hamarkadetan aurrerapauso nabarmenak eman ditugu, noski, eta aurrerapausoak berdintasunetan, oso inportanteak dira gure gizartean, eta horrela ere adierazi behar da. Baina egun emakumeen eta gizonen berdintasun eza errealitate bat da oraindik.

Bai Euskadin, eta bai mundu mailan.

Horregatik da garrantzitsua berdintasunaren inguruko nazioarteko itun eta agiriekin lerrokatzea.

Beijingeko deklarazioa, 1995ean, hango adierazpena mugarria izan zen, Gobernuak gizonen inplikazioaren beharra azpimarratu zutelako.

Europako Kontseiluaren “Estambuleko Ituna”, 2014an, eta Nazio Batuen 2030 Agendak helburu hori berretsi zuten biek.

Eta Euskal Autonomia Erkidegoan aitzindariak izan gara konpromiso horiek hartzerakoan.



Orain dela urte asko, 1988an sortu zen Emakunde. 2005ean, orain dela 21 urte, onartu zen lehen Berdintasun Legea, eusko legebiltzarrean. Eta 2007an, eta hor kanpoan komentatzen ari ginen oraintxe, jarri zen martxan 'Gizonduz' programa.

Pero queda mucho por hacer, sí. Y como muestra, un botón. O más bien dos. Os voy a leer dos titulares muy recientes.

Uno, de Euskadi: "Luz Usamentiaga, primera mujer que preside Euskaltel". Fue titular, no por presidir Euskaltel, sino porque era mujer.

Y otro, de Alemania: "Marie-Louise Eta, primera mujer en dirigir a un club de la Bundesliga".

No es noticia, ni nos llama la atención, que un hombre presida un Consejo de Administración de una gran empresa, ¿verdad? Y no debería ser noticia que lo haga una mujer. Pero lo sigue siendo.

No es noticia, ni nos llama la atención, que un hombre entrene un equipo femenino profesional. Y no debería ser noticia que una mujer entrene un equipo masculino de una gran liga Europea. Pero lo ha sido.

Dos ámbitos, liderazgo empresarial y deportivo, en los que persiste por lo tanto la desigualdad. Pero no son los únicos.

Los roles y actitudes que adoptamos los hombres en nuestro día a día, dentro y fuera de casa, tienen mucho que ver con esta realidad.

Tenemos, los hombres, una enorme responsabilidad. Y tenemos responsabilidades además añadidas quienes tenemos un cargo político, una responsabilidad pública. Los hombres que tenemos responsabilidades políticas debemos ser especialmente conscientes de todo esto.

Porque tenemos la capacidad de incidir en los espacios de decisión, de crear referentes positivos. Referentes de liderazgos igualitarios, compartidos, y justos.

En ese sentido, quiero compartir plenamente unas palabras de hace muchos años de quien fuera Lehendakari de Euskadi, el Lehehendakari Ibarretxe, cuando dijo que "la igualdad real y efectiva debe ser el proyecto político por excelencia".



El contexto global lo exige. Los valores cívicos y la democracia hoy están en riesgo, y cobran cada vez más fuerza modelos de liderazgos autoritarios basados en una masculinidad tóxica. Creo que se entiende perfectamente a lo que me estoy refiriendo en estos últimos días.

Y para avanzar hacia una sociedad igualitaria, es muy importante contar con representantes políticos concienciados, formados y comprometidos.

Solo así plasmaremos este objetivo de País en cada decisión, en cada plan, en cada norma, en cada ley y en cada acción. A partir de hoy damos un paso más: hoy creamos la red de hombres políticos a favor de la igualdad.

Hoy, con esta jornada y con esta iniciativa, ponemos un grano de arena más en la construcción, desde la política, de una sociedad más justa e igualitaria.

Erakutsi dezagun, beraz, gure Herrian, Euskadin, badela politika egiteko beste modu bat, errespetuan, berdintasunean, eta giza eskubideetan oinarrituta.

Izan gaitezen eredu, bereziki, gazteentzat, belaunaldi berrientzat.

Eskerrik asko eta onena opa dizuet gaurko jardunaldi honetan, mila esker!